

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-2072

AGINDUA, 2001eko martxoaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 18 urtetik gorakoek bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko egin behar dituzten proba libreak finkatzen dituen.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zera dio 52.3 artikuluan, hezkuntza-administrazioek probak antolatuko dituztela, aldiro-aldiro, 18 urtetik gorakoek bigarren hezkuntzako graduatu-titulua zuzenean atera ahal izan dezaten, eta proba horiek oinarritzko hezkuntzan eskatzen diren gaitasun orokorrak balioetsiko dituztela.

Otsailaren 16ko 173/1998 Errege Dekretuaren artikuluko bakarraren 5.3 paragrafoaren arabera, 2000-2001 ikasturtetik aurrera, hezkuntza administrazioek hama-zortzi urtetik gorakoendako probak antolatuko dituzte, berariaz ezarritako baldintzetan, bigarren hezkuntzako graduatu-titulua ateratzeko (173/1998 Errege Dekretuaren bitartez, hezkuntza sistemaren antolamendu berria ezartzeko egutegia onartzen duen ekainaren 986/1991 Errege Dekretua osatu eta aldatu zen).

Euskal Autonomia Erkidegorako derrigorrezko bigarren hezkuntzako curriculuma ezartzen duen ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak dioenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak curriculum hori egokituko du pertsona helduentzat. Egokitzapen hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko maiatzaren 29ko Aginduaren bitartez egin zen, izan ere, agindu horretan finkatzen da zein izango den, helduendako, Euskal Autonomia Erkidegorako oinarritzko prestakuntzako curriculum berezia modalitate bietarako, presentziazkorako eta urrutikorako (1998ko ekainaren 19ko EHAA).

213/1994 Dekretuak, gainera, zera dio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak behar diren arauak onartuko dituela balioespenaren eta ikasleen sustapenaren alorrean.

Hortaz, titulu hori lortzeko prozedura-arauak eta proba libreak egiteko baldintzak finkatzeko unea da. Beraz, hauxe

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-2072

ORDEN de 15 de marzo de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece la prueba libre para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria para mayores de 18 años.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE), establece en su artículo 52.3 que las Administraciones Educativas organizarán periódicamente pruebas para que las personas mayores de 18 años puedan obtener directamente el título de Graduado en Educación Secundaria e indica que dichas pruebas valorarán las capacidades generales propias de la educación básica.

De acuerdo con el párrafo 5.3 del artículo único del Real Decreto 173/1998, de 16 de febrero, por el que se modifica y completa el Real Decreto 986/1991 de junio por el que se aprueba el calendario de aplicación de la nueva ordenación del sistema educativo, a partir del año académico 2000-2001 las Administraciones educativas organizarán, en las condiciones que al efecto se establezcan, pruebas para la obtención del Título de Graduado en Educación Secundaria por parte de personas mayores de dieciocho años.

El Decreto 213/1994, de 21 de junio, por el que se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria para la Comunidad Autónoma del País Vasco, indica en su disposición adicional primera que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación adaptará dicho currículo a la educación de personas adultas. Esta adaptación se produce por Orden de 29 de mayo de 1998 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, que establece el currículo específico de formación básica para las personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 19/6/98), en las modalidades presencial y a distancia.

El mencionado Decreto 213/1994 establece también en su artículo 18 que el Consejero de Educación Universidades e Investigación dictará las normas de procedimiento pertinentes en materia de evaluación y promoción de alumnos.

Corresponde por tanto establecer las normas de procedimiento y condiciones para la realización de pruebas libres para la obtención del citado título. Por ello

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proba libreak antolatuko ditu, bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko, matrikula-modalitate hori aukeratzeko duten ikasleentzat, betiere agindu honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua.– Parte-hartzaileak.

Proba horietan parte hartzeko, nahitaezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea eta proba-egunean hamazortzi urte betetzea edo beteak izatea. Gainera, parte-hartzaileak ezin izango dira matrikulatuta egon bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko ikastaro ofizialetan, ez presentziazkoetan, ez urrutikotan.

3. artikulua.– Deialdia.

1.– Hezkuntza Sailburuordetzak egingo du probetarako deialdia ebazpen bidez. Deialdi horretan, honako hauek adiraziko dira gutxienez: epeak eta aurkeztu beharreko agiriak eta matrikula egiteko lekuak, proben egutegia eta probak egingo dituzten ikastetxeak.

2.– Bi ohiko deialdi egingo dira urtero, urtarrilean eta ekainean. Hezkuntza Sailburuordetzak egoki iritziz gero, aparteko deialdiak ere egin ahal izango dira.

3.– 1. paragrafoan aipatutako ebazpena jendaurrean jarriko da, bai HHiko ikastetxeetako iragarki-tauletan, bai Hezkuntza Saileko lurralde ordezkari-tauletan, matrikula epea amaitu baino 30 egun lehenagotik, gutxienez.

4. artikulua.– Proben ezaugarriak.

1.– Probak prestatzeko orduan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko maiatzaren 29ko Aginduko eranskina hartuko da erreferentziatzat, izan ere, agindu horretan finkatzen da zein izango den, helduendako, Euskal Autonomia Erkidegorako oinarriko prestakuntzako curriculum berezia (1998ko ekainaren 19ko EHAA).

2.– Probak hiru ariketa izango ditu, bakoitza bi ordukoa gehienez, eta egun berean egingo dira.

3.– Ariketa bakoitzak artikulua honetako lehenengo paragrafoan aipatutako aginduan zehaztutako eremuetatik bat hartuko du.

5. artikulua.– Baliozkotzeak eta salbuespenak.

1.– Derrigorrezko bigarren hezkuntzan eremu bateko arlo guztiak egin eta gainditu dituztenek, baliozkotzeko eska dezakete, I. eranskinean agertzen den taularen arabera.

DISPONGO:

Artículo 1.– Objetivo.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación organizará pruebas libres para la obtención del título de graduado en educación secundaria para aquellos/as alumnos y alumnas que opten por esta modalidad de matrícula de acuerdo con lo dispuesto en la presente orden.

Artículo 2.– Participantes.

Podrán participar en estas pruebas las personas residentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco que cumplan o hayan cumplido 18 años el día fijado para la realización de la prueba. Además, no podrán estar matriculadas en enseñanzas oficiales conducentes al título de Graduado en Educación Secundaria en régimen oficial (sea presencial o sea a distancia).

Artículo 3.– Convocatoria.

1.– La Viceconsejería de Educación realizará la convocatoria de la prueba mediante Resolución al respecto. En la misma deberán indicarse al menos plazos y documentación a presentar, así como lugar, para la matriculación, calendario de las pruebas, y centros públicos que las realizarán.

2.– Anualmente habrá dos convocatorias ordinarias (en los meses de enero y junio). Cuando la Viceconsejería de Educación lo estime oportuno podrá haber otras convocatorias extraordinarias.

3.– La Resolución citada en el apartado 1 de este artículo se hará pública en el tablón de anuncios de los centros públicos de EPA y Delegaciones Territoriales de Educación con una antelación de, al menos, 30 días al término de plazo de matriculación para las mismas.

Artículo 4.– Características de la prueba.

1.– La prueba será elaborada tomando como marco de referencia el anexo de la Orden de 29 de mayo de 1998 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece el currículo específico de formación básica para las personas adultas en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 19/6/98).

2.– La prueba constará de tres ejercicios de un máximo de dos horas de duración cada uno, que se realizarán el mismo día.

3.– Cada ejercicio versará sobre uno de los ámbitos establecidos en la Orden citada en el párrafo primero de este artículo.

Artículo 5.– Convalidaciones y exenciones.

1.– Quienes hayan cursado y superado en la Educación Secundaria Obligatoria todas y cada una de las áreas de un ámbito podrán solicitar la convalidación del mismo, de acuerdo con la tabla que figura en el anexo I.

2.– Helduen Hezkuntzako presentziatzko edo urrutiko irakaskuntzetan edo bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proba libreetan eremuren bat gainditu dutenek baliozkotzeko eska dezakete.

3.– Salbuespenei eta curriculumaren egokitzapenei dagokienez, indarrean dauden arauak hartuko dira kontuan.

6. artikulua.– Epaimahaia.

1.– Epaimahaia lehendakari batek eta bi bokalek osatuko dute gutxienez. Kide guztiak ikastetxeak berak aukeratuko ditu bigarren hezkuntzako irakasleen artean. Idazkari-lanetan ikasketzeko idazkaria arituko da.

2.– Epaimahaikideen artean, hiru eremuetako irakasle bana egongo da gutxienez.

7. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Probek eremu bakoitzari dagozkion gaitasunak lortu eta ikasi diren neurtuko dute, eta ariketa bakoitzaren besteetatik bereiz zuzenduko da.

2.– Epaimahaia probaren ebaluazio globala egingo du. Hiru eremuak gainditu dituztenei bigarren hezkuntzako graduatu-titulua emateko proposatuko du epaimahaia.

3.– Errendimendu akademikoa irizpide guztiz objektiboekin ebaluatzeko bermeak aplikatuko zaizkie proba hauei ere, behar diren egokitzapenak eginda. Berme horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko abenduaren 11ko Aginduaren V. kapituluaren jasota (Oinarritzako prestakuntza presentziatzko edo urrutiko modalitateetan jasotzen duten ikasleak ebaluatzeko Agindua, 1999ko otsailaren 2ko EHAAn argitaratua).

8. artikulua.– Titulua eta administrazio-agiriak.

1.– Tituluaren jabe izateko proposatu diren ikasleek eskubidea izango dute bigarren hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eta horrek batxilergoan eta berariazko lanbide-hezkuntzako erdi mailako prestakuntza-zikloetan sartzeko aukera emango die.

2.– Parte-hartzaile guztiek proba osoaren edo ariketa bakoitzaren emaitzak egiaztatzeko agiria eskatu ahal izango dute. Agiri hori ikastetzeko idazkariak egingo du, zuzendariaren oniritziarekin.

3.– Pertsonaren bat bigarren hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko proposatu ez bada baina eremuetakoren bat gainditu badu, gorabehera hori aktan jasoko da, proba libreetarako hurrengo deialdietan kontuan hartu dadin.

4.– Deialdiaren ebazpenean, behar diren agiri-eremuak eskainiko dira.

2.– Quienes hayan superado algún ámbito en las enseñanzas presenciales o a distancia de la Educación de Personas Adultas, o en pruebas libres para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria podrán solicitar su convalidación.

3.– Se tendrá en cuenta la normativa vigente sobre exenciones y adaptaciones curriculares.

Artículo 6.– Tribunal.

1.– El tribunal lo compondrán al menos un/a Presidente/a y dos vocales, designados al efecto por la dirección del centro, entre el profesorado de Educación Secundaria del mismo. Actuará como Secretario el del centro.

2.– Entre los componentes del tribunal deberá haber el menos un/a profesor/a de cada uno de los tres ámbitos.

Artículo 7.– Evaluación.

1.– La prueba deberá evaluar el logro de las capacidades y aprendizajes propios de cada ámbito y cada uno de los ejercicios será corregido separadamente.

2.– El tribunal llevará a cabo una evaluación global de la misma. Quienes hayan superado los tres ámbitos serán propuestos/as para el título de Graduado en Enseñanza Secundaria.

3.– Con las adaptaciones necesarias a las características de esta prueba serán de aplicación las garantías de evaluación del rendimiento académico conforme a criterios de plena objetividad incluidas en el capítulo V de la Orden de 11 de diciembre de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, sobre la evaluación del alumnado de Formación Básica para las personas adultas en las modalidades de educación presencial y a distancia (BOPV 2 de febrero de 1999).

Artículo 8.– Titulación y documentación administrativa.

1.– Las personas que hayan sido consideradas propuestas para el título tendrán derecho a recibir el título de Graduado en Educación Secundaria que les facultará para acceder al Bachillerato y a los Ciclos Formativos de grado medio de la Formación Profesional Específica.

2.– Todas las personas participantes podrán solicitar una acreditación de los resultados de la prueba y/o de cada uno de los ejercicios que la componen, que será extendida por el/la Secretario/a del Centro con el VºBº del/de la Director/a.

3.– Cuando una persona no sea propuesta para el título de Graduado en Enseñanza Secundaria, pero haya superado alguno de los ámbitos, se reflejará en el acta, de modo que pueda ser tenido en cuenta en posteriores convocatorias de las pruebas libres.

4.– En la Resolución de convocatoria se contemplarán los modelos de documentación necesarios.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.– 2001-2002 ikasturtera arte, hori barne, heldutasun probak egingo dira eskola-graduatuaren titulua ateratzeko (proba horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko apirilaren 11ko Aginduan arautu ziren eta Agindua 1994ko apirilaren 26ko EHAA argitaratu zen, eta hutsen zuzenketa 1994ko ekainaren 9koan).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Hezkuntza sailburuordeari eskumena ematen zaio Agindu hau aplikatzeko eta garatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.– Agindu hau EHAA argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 15a.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única.– Hasta el curso académico 2001-2002, inclusive, seguirán realizándose las pruebas de madurez para la obtención del Título de Graduado Escolar reguladas por Orden de 11 de abril de 1994 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación. (BOPV 26-4-94, corrección de errores 9-6-94).

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se autoriza al Viceconsejero de Educación a dictar cuantas disposiciones sean precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en la presente Orden.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2001.
El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

I. ERANSKINA

EREMUEN BALIOKIDETZEA

Eremua	Gaindituta izan behar dituen eremuak
Komunikazioa	Gaztelera eta Gaztelera-ko Liter. (DBH 4). Euskara eta Euskarazko literatura (DBH 4). Atzerriko Hizkuntza (DBH 4).
Gizarte-jakintza	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia (DBH 4).
Zientifiko-teknologikoa	Teknologia (DBH 3). Natur Zientziak (DBH 3). Matematikak (DBH 4).

ANEXO I

CONVALIDACIÓN DE ÁMBITOS

Ámbito	Áreas que debe tener aprobadas
Comunicación	Lengua Castellana y Literatura (4.º ESO). Lengua Vasca y Literatura (4.º ESO). Lengua extranjera (4.º ESO).
Conocimiento Social	Ciencias Sociales, Geografía e Historia (4.º ESO).
Científico-tecnológico	Tecnología (3.º ESO). Ciencias Naturales (3.º ESO). Matemáticas (4.º ESO).